



Iturria: Mila gau eta gau bat gehiagoko ipuinak: ahoz ahoko ipuin bilduma erraldoia, arabiar lurraldeetan X. eta XVI. mendeen bitartean sortuak. Idatzizko bilduma garrantzitsuenak XIX. mendetik honakoak ditugu.

UZKER GOGOANGARRIA

«Gaurko istorioan, errege dohatsu hori, Abul-Hossein-en gorabeherak kontatuko ditut —Alah jakintsuagoa bada ere!—. Baina, luzaro gabe, lehenbailehen kontatzera noakizu!» Eta Shahrazada honela mintzatu zen:

Kaukaban hirian, Yaman-en, ba omen zen Abul-Hossein zeritzon¹ beduino bat, Fazli tribukoa. Aspaldi handian bertan behera utzia zuen beduinoen bizimodua, hiritar entzutetsu eta merkatari aberatsetan aberatsena bilakatzeko. Gaztaroan ezkondu zen lehen aldiz; ezkontzatik urtebetera, berriz, Alah-k bere altzora eraman zion emaztea. Harrezkero², Abul-Hossein-en adiskideek berriro ezkontzeko gomendioa egiten zioten, ekin eta ekin, poetaren harako berbak ahotan hartzen zituztela:

«Jaiki zaitez, lagun; ez utzi alferrik pasatzen udaberria, udaberri den bitartean! Hara hor neska gazte xarmanta! Ezkon zakizkio! Ez al dakizu emakumea etxean dela urte guztirako egutegi ezin hobea?»

Abul-Hossein, azken buruan, adiskideen ekinaren aurrean amore emanda, hasi zen tratuan atso ezkontzaginekin. Eta ezkondu zen neska gazte eder-eder batekin, ilargiak, itsasoan datzanean, urari argi eragiten dion isladuraren parekoa.

Ezteiek eman zioten abaguneaz jai handi eta oparoak³ egin zituen, bertara adiskide, lagun eta ezagun guztiak gonbidatuz eta bai ulemak, fakirrak, derbitxeak eta santoiak ere. Eta etxeko ateak alderik alde irekita, gonbidatu guztientzat gisa orotako jakiak eta gutiziak⁴ zerbitzarazi zituen; besteak beste⁵, han ziren zazpi kolore desberdinetako arrozak, sorbeteak; urritz, almendra, pistatxa eta mahaspasaz beteriko bildotsak; eta gamelu-kume bat osorik erreta, zati bakarrean zerbitzatua. Eta jende orok jan, edan eta gozatu egin zuen pozaren pozaz eta alaitasunaren alaitasunaz. Eta jendartetik igaroz, zazpi bider erakutsi zuen harrotasunez andre berria, zazpi jantzi zein baino zein ederragoekin. Zortzigarrenez ere pasarazi zuten emaztea begi ikusmiratsuen artetik, ordura arte erreparatu ez ziona haren xarmak⁶ begietsi gabe gera ez zedin. Ondoren, adineko damek emaztea eztei-ganbaran sartu, errege-aulkiaren altuerako ohe batean etzanarazi zuten, eta senarra hartzeko behar zituzkeen era guztietako aholkuak eman zizkioten.

Orduan, segiziotik zertxobait urrunduta, Abul-Hossein, ezari-ezarian⁷ eta duintasunez, sartu zen emaztearen gelan. Jesarri ere egin zen apurtxo batean bertako dibanean, bere burua probatzearren eta nahiz emazteari nahiz segizioko damei zein artatsua⁸ eta gizabidetsua⁹ zen erakustearren. Gero adeitasunez jaiki zen, dama guztien zorionak eta agurrak jasotzeko oheratu baino lehen. Ohean, berriz, emazteak apalki itxaroten zion... baina hara non... —Oi zoritxarra!— bere sabeletik, edariz eta jaki astunez beteriko sabel hartatik uzker zalapartatsu luze-luzea irten zen burrunbada¹⁰ ikaragarrian! —Urrun bedi Izpiritu Gaiztoa!

Zarata hura entzun zutenean, dama guztiek, binan-binan jarrita, aurrez aurre zutenarekin goraki mintzatzeari ekin zioten, ezer entzun ez zutelakoa egiten; emazteak berak ere, barre edo burla egin beharrean, besoei eraginez bere eskumuturrekoei txintxin-hotsa aterarazten zien.

Baina Abul-Hossein, asaldura¹¹ gorrian, bihotz barruraino lotsaturik, premia handiko zerbait egin behar zuelako aitzakian, jaitsi zen patiora, bere behorra zelatu¹², eta haren bizkar gainera jauzi eginda, etxea, ezteia eta emaztea bertan behera utziz, ihesi joan zen gaueko ilunbetan barrena. Eta hiritik irtenda, basamortuan sartu zen. Gisa horretara itsas bazterrera iritsi zen, non Indiarantz abiatzekoa zen untzi bat ikusi baitzuen; eta bertan sartuta, Malabarreko itsas-bazterrera heldu zen. Toki hartan, yamandar batzuen adiskidetasuna jadetsi¹³ zuen. Hauek erregeri aurkeztu zioten, gomendio onak emanez; erregek konfiantzazko kargu bat eman zion, zaingo-kapitain izendatuz. Eta horrela hamar urtez bizi izan zen herrialde hartan, denen aintzatespena¹⁴ eta begirunea zituela, bizimodu laketgarriak zemaion barne-lasaitasunaren abaroan¹⁵. Eta uzkeraren oroipen zantarra haren gogo asaldatzera zetorkionetan, aienatu¹⁶ egiten zuen, kirats nazkagarriak aienatu ohi diren moduan.

Urteak joan urteak etorri, herrimina ezari-ezarian haren barneaz jabetu zen eta hamar urteren buruan habia egina zion bihotzean, tristeziaz gaixotzerainokoan. Bere etxe eta hiria urrunetsiz zizpuruka aritzen zen eten gabe; gurari hura heriotzara ere amildu behar zuen irrika suharra bilakatu zitzaion.

Egun batean, bere arimaren aldarriari¹⁷ men eginik, erregeri agur esateko ere betarik hartu gabe, alde egin zuen Hadramon herrialdera, Yaman-era itzultzeko. Bertara helduta, derbitxe jantzia soinean jarri eta Kaukaban hirira jo zuen, oinez; eta gisa horretara iritsi zen hiriari gain hartzen zion muinora. Eta, begiak malkotan zituela, ikusi zuen behinola berea izan zen etxearen terrazara, eta inguruko etxeenak ere bai, bere buruari ziotsola: «*Ez ahal nau inork ezagutuko! Alah-ri nahi dakiola nire historia denek ahaztu izana!*» Horrelako gogoetak zerabiltzala, muinotik behera jaitsi eta lasterbide bakan ibilietatik egin zuen bere etxerainoko bidea. Bidez bide zihoala atso bat ikusi zuen etxe bateko atalasean¹⁸ jesarrita; hamar urteko neskatxo bati buruko zorriak kentzen ziharden. Neskatxoak honela ziotson atsoari: «*Oi ama neurea! Nire adina zehatz-zehatz jakin gura nuke, lagun batek nire horoskopoa atera nahi du eta. Esango didazu, ba, zein urtetan jaiotzen zinen?*» Une batez hausnarrean egondakoan, atsoak erantzun zion: «*Oi ene alabatxoa, zu, izan ere, zerean jaiotzen zinen: Abul-Hossein-ek uzkerria jaulki¹⁹ zuen urte eta gau berberean!*»

Abul-Hossein dohakabeak²⁰ hitz horiek entzun zituenean, ibilitako bidea atzera egin zuen, hankak haizearen arintasunaz zebiltzala. Bere barrurako zioen: «*Hara hor zure uzkerria, egitegian data gogoangarria²¹ bihurturik! Eta hala jarraituko du, mendeak joan mendeak etorri, palmondoak urtero loratzen diren bitartean!*» Eta lasterrean ekin zion bide egiteari, gelditu barik, harik eta Indiako lurraldeetara heldu arte. Eta deserrian²² bizi izan zen, samintasunez beterik, bere heriotzaren eguna arte –Erruki bekio Alah bere onberatasunaz²³!

ARIKETA

1. EGIZU ZERRENDA BAT MARKATUTA DAUDEN HITZEKIN ETA EMAN BAKOITZAREN SINONIMO EDO AZALPEN BANA.
2. IDAZLANA. BERRIDATZ EZAZU ISTORIA LEHEN PERTSONAN, ABUL-HOSSEIN PERTSONAIK KONTATUKO BALU BEZALA. ESALDI EDO PASARTEREN BAT KEN DEZAKEZU, KONTAKIZUNAREN HARIAK HALA ESKATZEN BADU.